



## Azken hiru egunetan 1200 ikaslek hartu dute parte Ciencia Show ekimenean

***Bakarrizketa zientifikoaren ikuskizunaren helburua da ikasleen artean zientziarekiko interesa piztea.***

***Ciencia Show Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Big Van Cienciak antolatutako ekimena da.***

**Bilbo, 2024ko urtarrilak 12.** Aurten 24 ikastetxetako 1200 ikaslek hartu dute parte [Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta [Big Van Cienciak](#) antolatutako *Ciencia Show* saioetan.

Egitasmo horren helburua bakarrizketa zientifikoaren bitartez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleengan zientziarekiko interesa eta jakin-mina piztea da.

Azken hiru egunetan *Ciencia Show* ekimena Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan egin da: Bilbon UPV/EHUko Bizkaia Aretoko Mitxelena aretoan, Gasteizen UPV/EHUko Ingeniaritza Eskolan eta Donostian Ignacio Maria Barriola Zentroan.

Saio horietan entzun ahal izan diren umorezko bakarrizketa zientifikoek hainbat gai jorratu dituzte, hala nola, ingeniarietza genetikoak, energia nuklearra eta materialen azterketa.

### **Bakarrizketa zientifikoaren lehiaketa**

*Ciencia Show* ekimenak hurbiltasunetik eta umoretik gai zientifiko ezberdinak jorratu nahi ditu. Horretaz gain, ikasleen parte hartze aktiboa bilatzen du eta helburu horrekin ikasleen arteko bakarrizketa zientifikoaren lehiaketa antolatzen du urtero.

Txapelketan parte hartzeko ikasleek gai zientifiko bat aukeratu beharko dute eta, bakarrizketa formatuan, azaldu. Bideoan grabatutako bakarrizketa zientifikoak aurkezteko epea otsailaren 23an bukatzen da eta apirilaren 12an Euskadiko finala egingo da Donostian.



## 1200 estudiantes han acudido durante los últimos tres días a las charlas científicas de Ciencia Show

*El objetivo de la iniciativa es fomentar el interés en la ciencia entre los y las estudiantes mediante monólogos científicos.*

*Ciencia Show es una iniciativa organizada por la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco y Big Van Ciencia.*

**En Bilbao, a 12 de enero de 2024.** 1200 estudiantes de 24 centros educativos han participado en las sesiones de *Ciencia Show* organizado por la [Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) y [Big Van Ciencia](#).

El objetivo de esta iniciativa es crear y fomentar el interés en la ciencia en los y las estudiantes de Educación Secundaria Obligatoria y Bachiller mediante monólogos científicos humorísticos.

En los últimos tres días se han realizado tres sesiones en las distintas capitales de la Comunidad Autónoma Vasca. En Bilbao en el auditorio Mitxelena de Bizkaia Aretoa UPV/EHU, en Vitoria-Gasteiz en la Escuela de Ingeniería de la UPV/EHU y en Donostia en el Centro Ignacio María Ibarrola.

En los monólogos científicos que se han podido escuchar durante los tres últimos días se han tratado temas tan diversos como la ingeniería genética, la energía nuclear o el análisis de los materiales.

### **Concurso de monólogos científicos**

*Ciencia Show* es una iniciativa que muestra diferentes áreas científicas con un tono desenfadado y que busca, además, la participación activa de los y las estudiantes. Con ese objetivo, organiza anualmente un concurso de monólogos científicos.

Para participar los y las estudiantes deben elegir un tema científico y explicarlo mediante un monólogo. El plazo para presentar los monólogos científicos grabados en vídeo termina el 23 de febrero y el 12 de abril se realizará en Donostia la final de Euskadi.